

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4327

AGINDUA, 2012ko abuztuaren 21ekoa, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena, «On-line erregistro zibila» programa (Inforeg aplikazioa) bake-epaitegietan instalatuta eta martxan daukaten Euskal Autonomia Erkidegoko udalei programaren 2012ko ekitaldiko mantentze-gastuak ordaintzen laguntzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituen.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 35.3 artikulua, 13.1 artikuluekin batera, autonomia-erkidegoari ematen dizkio Justizia Administrazioaren beharrianak asebetetzeko eskumenak eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 9. artikulua nahiz Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikulua ezarritakoaren arabera, Justizia eta Herri Administrazio Sailari dagokio aipatutako beharrianak asebetetzeko zeregina.

Botere Judizialaren Lege Organikoak xedatzen duenez, udalerriaren esparruan txertatutako organoak dira bake-epaitegiak, eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko abenduaren 28ko 38/1988 Legearen 50. eta hurrengo artikuluetan jasotako aurreikuspenen arabera, instalazioak eta baliabide materialak, besteak beste, udalaren ardura dira aipatutako bake-epaitegirik dagoen lekuetan. Artikulu horietan jasotzen da, halaber, udalei diru-laguntzak eman behar zaizkiela, eta, hori dela-eta, ez zaio orain arte uko egin aipatutako organoetako baliabide materialen mantenurako udalekin izan ohi den lankidetzari.

Horrela, euskal herritarrei zerbitzu eraginkorra eta ona emate aldera bake-epaitegiak baliabide egokiz hornitzeko eginahalak egin badira ere, epaitegi horien jardunean badira zenbait jardun-arlo berariazko laguntza ekonomikoa behar dutenak teknologia berrien erabileraren bidez erregistro zibiletarako sarbidea hobetu dadin.

Illo horretan, eta epaitegi horiek eraberritu eta informatizatzeko zereginak duen garrantziari erantzunez, Red.es enpresa-erakunde publikoa eta Justizia eta Herri Administrazio Saila, «Avanza» izeneko planaren esparruan, azpiegitura eta ekipamendu egokiak jartzeko lanetan hasi ziren –ekipamendu informatikoa erosi eta Internetarako konexioa jarri–, kudeaketako tresna berrien eta garatutako sistemen erabilera orokortu ahal izan dadin. Helburu hori gauzatzeko, Inforeg programa ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoko bake-epaitegi ugaritan.

Helburua hori izanik, Avanza planaren esparruan «On-line erregistro zibila» programa (Inforeg) martxan jartzea aurreikusi zen (horretarako, hitzarmena sinatu zuten 2006ko maiatzaren 17an Justizia Ministerioak eta Red.es erakundeak) eta, aipatutako programa garatzeko, Red.es erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2010eko urriaren 29an.

Era berean, eta lankidetzaz horren emaitza gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako laguntza-programa bat eratu zen Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2010eko urriaren 27ko Aginduaren bidez (Agindua, 2010eko urriaren 27koa, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena, «On-line erregistro zibila» programa (Inforeg aplikazioa) Euskal Autonomia

Erkidegoko bake-epaitegietan ezartzeko xedez ekipamendu informatikoa eskuratzeko helburuz udalen aldeko laguntzak arautzeko dena).

Orain, deialdi honekin, aipatutako Inforeg aplikazioa baldintza onetan mantendu nahi da bake-epaitegietan zerbitzua eman dezan eta, horretarako, diru-laguntza honekin, bake-epaitegietan «On-line erregistro zibila» programak (Inforeg aplikazioa) eragiten dituen gastuak ordaintzen lagundu nahi zaie Euskal Autonomia Erkidegoko udalei.

Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2009 Legeak ezarritakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Agindu honen helburua da «On-line erregistro zibila» programa (Inforeg aplikazioa) bake-epaitegietan instalatuta eta martxan daukaten Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako laguntzen deialdia egitea programaren 2012ko ekitaldiko mantentze-gastuak ordaintzen laguntzeko eta, horrez gain, laguntza horiek arautzea.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Bake-epaitegietan «On-line erregistro zibila» programa (Inforeg aplikazioa) instalatuta eta martxan daukaten Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiak.

3. artikulua.– Dirubaliabideak.

1.– Diru-laguntzen programa honetarako gehieneko dotazioa 87.750 eurokoa da. Zenbateko hori, «On-line erregistro zibila» programa (Inforeg aplikazioa) bake-epaitegian instalatuta eduki, zaindu eta erabiltzen duten udalen artean banatuko da; hain zuzen ere gehienez 750 euroko laguntza emango zaio udal bakoitzari, populazio-eskala honen arabera:

- 1etik 2.999ra biztanle dituzten udalei250 euro.
- 3.000tik 6.999ra biztanle dituzten udalei700 euro.
- 7.000 biztanletik gora dituzten udalei750 euro.

2.– Ezarritako epearen barruan egindako eskaera guztiei, betiere eskaera horiek deialdi honetan eskatutako baldintza subjektiboak eta objektiboak betetzen badituzte, % 100eko zenbatekoa emango zaie, aurreko paragrafoan ezarritako mugei jarraituz.

Ezarritako dotazio osoarekin ezin baldin bazaie gehieneko portzentajea eman ondo aurkeztutako eskaera guztiei, dotazio hori populazio-eskalaren arabera hainbanatuko da.

4. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua, inprimakiak eta epea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabetekoa izango da.

2.– Eskabideak aurrez aurre eta zuzenean aurkez daitezke Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailean (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan, arauzko eskabide-orria oso-osorik beteta. Eskabide-eredua egoitza elektroniko honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.net>

Era berean, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango dira, euskadi.net-eko egoitza elektronikoan.

3.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten bezala. Orobat, prozeduran zehar, erakundeak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

5. artikulua.– Diru-laguntza eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak.

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira: bake-epaitegiko idazkariak egindako ziurtagiria, «On-line erregistro zibila» programa (Inforeg aplikazioa) instalatuta eta martxan dagoela egiaztatzen duena; eta udaleko idazkariak egindako ziurtagiria, programa horren mantentze-gastuen zenbateko zehatza egiaztatzen duena.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin ahal izango dituzte eskabideak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Izapidetze elektronikoa Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren bidez eta Informatika eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez arautzen da.

3.– Izapideak egiteko argibideak, aurrez aurre edo modu elektronikoan, bai eta eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako eredu guztiak ere <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoan eskura daitezke.

4.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, eta edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea.

Eskabidearen osteko izapideak, bide elektronikoz, honen bidez egiten dira: <https://www.euskadi.net/misgestiones>

7. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeko organoa.

Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak kudeatzea.

9. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik gehienez bi hilabeteko epean Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendariak ebazpena emango du eta hura onuradun bakoitzari jakinaraziko zaio. Gainera, onuradunen zerrenda EHAA-n argitaratuko da. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, eskaerak administrazio-isiltasunaren bidez ezetsitzat jo ahal izango dira.

2.– Aurreko idatzi-zatian aipatzen den ebazpenak ez dio bukaera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka gorako errekurtsioa jar dezakete interesdunek Justizia Sailburuordetzan, jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

10. artikulua.— Diru-laguntzaren ordainketa.

1.— Diru-laguntzaren zenbatekoa ordainketa bakarraren bidez emango zaio onuradun bakoitzari, Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendariak diru-laguntza esleitzeko ematen duen ebazpena jakinarazi ondoren.

2.— Justifikatutako gastuaren zenbatekoa 3.1 artikuluan adierazitako populazio-eskalaren arabera aurreikusitako diru-laguntzarena baino txikiagoa bada, ordaindu beharreko kopurua proportzionalki gutxituko da.

3.— Artikulu honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko edo entitate publiko nahiz pribatuak helburu berarekin ematen dituztenekin, betiere guztiak batuta diru-laguntza honen objektu den gastuaren % 100 gainditzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, gastuaren % 100 gainditzen duen kopurua kenduko zaio deialdi honen arabera dagokion diru-laguntzari.

4.— Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatu egiten badira edo agindu honen objektu den diru-laguntzaz gain beste laguntza edo diru-laguntzaren bat jasotzen bada beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batengandik, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da, betiere, laguntza eskuratzeko bete beharreko betekizunak bete gabe uzten ez direnean.

5.— Diru-laguntza jasotzeko bide eman zuten baldintzetakoren bat ez dela betetzen egiaztatuz gero, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin bat eta horiei jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio jasotako diru-zenbatekoa eta horri dagozkion legezko interesak.

11. artikulua.— Onuradunen betebeharrak.

1.— Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, laguntza eman izana jakinarazten denetik hamar eguneko epean udal onuradunak espresuki eta idatziz laguntzari uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

2.— Diru-laguntza zein helburutarako eman den, helburu horretarako erabili beharko dute udal onuradunek.

3.— Udal onuradunek Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzari ezagutarazi beharko dizkiete beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatuengandik helburu bererako jasotako laguntza edo diru-laguntzak, diru-sarrerak nahiz bestelako baliabideak.

4.— Udal onuradunak behartuta daude Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, diru-laguntzen erabilera fiskalizatzeko duten funtzioa betez, eskatzen dieten informazio guztia ematera.

12. artikulua.— Egiaztatzeak.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak, esleitutako finantzaketa-arau eta -baldintzak betetzen direla ikusteko, egokitzen jotzen dituen gainbegiratze, ikuskatze eta egiaztatzeak egin ahal izango ditu.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Agindu honetan aurreikusi gabeko alderdiei arau hauek aplikatuko zaizkie: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea, bereziki VI. titulu

ezarritakoa (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako testu bategina, 1998ko urtarrilaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua); bestetik, administrazio-prozedura erkidearen araudia, baita Bake Justiziari buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretua ere.

Bigarrena.—Agindu honek bukaera ematen dio administrazio-bideari. Aurka egiteko, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 21a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.